

## **EBAZPENA, 2024KO ABUZTUAREN 21EKOA, EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIARENA, EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN 2024. URTERAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ZUZENTZEN DUENA**

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariaren 2023ko urriaren 11ko Ebazpenaren bidez, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen 2024. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (DPE) onartu zen.

Ebazpen horretan objektuari eta izendapenari dagokion akats bat antzeman da 3.3 puntuan eta bere fitxan, zehazki, "*Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruzko unibertsitate-master ofiziala*" egiteko dirulaguntzaren izenari dagokionez.

Dirulaguntza horren izapidetzea premiazkoa denez, deialdia urrirako argitaratuta egon behar baita, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen araudia betez, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa zuzenduko da lehiarik gabeko erregimeneko dirulaguntzen lerro bakarrari dagokionez, zenbatekoa mantenduz eta diruz lagun daitekeen xede edo jardueraren izena honako zentzu honetan aldatuz: "*Emakumeen aurkako Indarkerian Esku Hartzeari buruzko Unibertsitate Master Ofiziala egiten duten pertsona fisikoentzako dirulaguntzak, Deustuko Unibertsitatea*" izendapenaren orde, Deustuko Unibertsitatearekin sinatuta dagoen hitzarmenaren arabera - espedientean jasota dagoena-, "*Sexu-indarkerian Esku Hartzeko adituen diploma egiten duten pertsona fisikoentzako dirulaguntzak*" izendapena jarri behar da.

Azaldutako guztiagatik, honako hau

### **EBAZTEN DUT:**

**Lehena.**– Onartzea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen 2024rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren zuzenketa, DPEren 3.3 puntuan jasotako lehiarik gabeko dirulaguntzen lerroari dagokionez, 3.3 ataleko fitxa teknikoa barne, eranskinean jasotzen den bezala.



### **3.3 Lehia-konkurrentziaren araubidekoak ez diren dirulaguntza-lerroak.**

Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko arloa:

Pertsona fisikoentzako dirulaguntzak Sexu-indarkerian Esku Hartzeko adituen diploma ikasteko Deustuko Unibertsitatean.

**Bigarrena.**– Agintzea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen webgunean argitara dadila.

**Hirugarrena.**– Plana gauzatzera bideratutako urteko zuzkidura ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren legeetan jasotakora egokituko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abuztuaren 21a.

**MIREN ELGARRESTA LARRABIDE,  
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaria**

## ERANSKINA

### 3.3

#### Ardatzak eta dirulaguntza-lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

<b>SEXU-INDARKERIAN ESKU HARTZEKO ADITUEN DIPLOMA EGITEKO LAGUNTZAK. 2024</b>	
9. helburua. ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA ERALDATZEA SUSTATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.	
9.3. ekintza. Azterlanak eginez eta dokumentatuz eta genero-ikerketara eta -prestakuntza lagunduz emakumeen eta gizonen berdintasun-arloko ADITU-EZAGUTZA bultzatzea	
Adierazlea: Urteko deialdia. Magnitudea: 1	
<b>EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA<sup>1</sup></b>	
<b>HELBURU ESTRATEGIKOA: III. ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA</b>	
<b>6. PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA</b>	
6.2	Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea.
6.2.1	Informazioa biltzeko eta homogeneizatzeko sistemak hobetzea, EAEn gertatutako emakumeen kontrako indarkeria kasuei buruzko datu eguneratuak izateko eta gai horretan parte-hartze publikoa hobetzeko.
6.2.2	Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko eta haren adierazpenei buruzko jakintza hobetzea.
6.2.3	Ez zaintzearekin lotutako emakumeen aurkako indarkeria motak aztertzea, bereziki adineko emakumeetan eta dibertsitate funtzionala dutenetan, hala familian nola erakundeetan.
6.2.4	Indarkeriaren kontzeptualizazioari eta esku-hartzeetan horrek dituen ondorioei buruzko hausnarketa bultzatzea, indarkeria-mota berrietan arreta berezia jarritz.
6.2.5	Bermatzea emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta ematen dieten profesionalen prestakuntza iraunkorra, nahikoa eta eremu eta ardura-maila guztietara egokitutakoa izatea.
6.2.6	Beren esku-hartzean emakumeen ahalduntze pertsonala eta kaltea konpontzearen kontzeptua txertatzeko behar besteko trebakuntza duten profesionalen kopurua handitzea.
Adierazlea: 15, Sexu-indarkerian Esku Hartzeko adituen diplomako ikasleei emandako laguntzen kopurua	

<sup>1</sup> VII. Plana aipatzen da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen 2023ko urriaren 11ko Ebazpena emateko unean indarrean zegoen plana delako. Ebazpen horren bidez, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen 2024ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen.

**DPEa ahalik eta lasterren osorik egokituko da EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia berrira eta Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeak eskatutako baldintzetara.**